

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

*Jose Luis Alvarez Enparantza
Txillardegia*

*Donostia,
Gipuzkoa
(1929-2012)*

Aurkibidea



Biografia



Donostiarra, euskal kulturaren oso ezaguna da *Txillardegi*. Idazlea, hizkuntzalaria, irakaslea... 30etik gora liburu eman ditu argitara.

"Leturiaren egunkari ezkutua"-rekin euskal nobelagintza berri zuen, 1957an. Politikan ere jardun du. Bilbon Ingeniaritza ikasten ziharduela gazte mugimendu abertzaleetan parte hartzen hasi zen. EAJren ekintza faltarekin konforme ez, eta Ekin taldea sortu zuten, ETAren hazia. Hainbat aldiz atxilotu zuten, eta 1961ean erbestera jo zuen. 1976an itzuli zen, eta Euskal Sozialista Biltzarrea sortu zuen. 1980ko hamarkadan HBko Mahai Nazionalean ere egon zen. Baina euskalgintzan ibili zen batez ere. Hainbat ikerketa egin zituen, eta hizkuntzalaritzako irakasle jardun zuen EHUn. Euskaltzain urgazlea zen. Antiguari bizi zen txikitatik, eta "Antigua 1900" liburuan jaso zuen auzoa garai batean nolakoa zen.

Zintak

DON-010

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-09-11
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider

DON-234

- **Proiektua:** Roberto Altunaren fondoa
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:** 1985-09-19
- **Iraupena:** 80 min
- **Euskarria:** Audio Analog

- **Emalea:** Altuna Erle, Roberto

Pasarteak

1. Antiguatarra, erdigunean jaio arren

- **Erref:** DON-010/003
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:01:47. **Bukatu:** 00:02:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aita Kubara joan zen anaiarengana, eta San Martin kalean jaio zen bera, amonaren etxean. Han bizi izan zen. Gerra etorri zenerako, baina, Antiguan zegoen. Orduko oroitzapenak.

Transkripzioa

Aita, ba, izan zan krisi ekonomiko bat nere aitonaren enpresan. Eta orduan joan zan bere anaia, nere osaba Kuban zegon, eta joan zan Kubara. Eta orduan horregatik ni lehenengo urteetan nere ama, klaro, nere aita joan zan, joan zan bere amangana, bere amangana. "o sea", Inaxia Larramendi, hoi bizi zan San Martin kalean. Eta ordun ni horregatik egon nintzan urte batzutan hor, zean, San Martin kalen. Baiño gero ya bueltatu nintzan berriz Antiguora. Gerra hasi zanian Antiguan egon giñan. "O sea" gerra hasi zan egunean ni oso ondo goatzen naiz aurreko billan dana hartuta, militarrek hartuta, ni bizi nintzan "calle", orduan "carabineros" zian, gero "guardia civil". Eta bai, hori guztia ikusten ai naiz oaindik ere ba bai, terrazetan zegon armatuak eta "aiba dios! ze gertatu da!", "ba gerra hasi da". Joe. Hoi izan zan berez uztailaren hogeita hamaseiko uztailaren hemezortzian, beraz. Beraz, ni ordurako ya Antiguan neon, baiña iya bi urte egon nintzan nere... [...] ni antiguotarra naiz, ezta? Bai.

2. 'Txillardegí' ezizena

- **Erref:** DON-010/004
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:02:59. **Bukatu:** 00:04:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Txillardegí ezizena nondik datorkion. Tolosatik joan zen aitona Donostiara. Bizi zen tokiaren ondoko etxea zen Txillardegí.</p>

Transkripzioa

-Bueno nere izena Txillardegí hori zan, etxe ondoko hor badao ba bat baiño ez dakit geo nahi bazu [...] hartu eo, nahi bazu ingo deu, nahi bazu enfokatu. O sea ni bizi, nere aita, aitona etorri zanen Tolosatik ba joan zan bizitzera Antiguora, ta orduan ba erosi zun lur sail bat, hain zuzen ere

Txillardegi ondoan. Eta orduan, ni ez naiz ezer'e Txillardegiri buruz, Txillardegi zan Iturria izeneko bat, Donostian Donostian ba en fin, alkateorde izandakoa ta hola, ezta? Hoiek zian nafartarrak, karlistak gaiñea. Eta orduan, eta baiño hala ere, etxian beti nik entzuna det: "Joe Txillardegi!", hemen zeola tal, ni goatzen naiz gaiñea, gazte nintzanean oaindik ere Matia kalean bazeon han: Casa Chillardegi, CHkin eh. Nik banekien beti, nere etxea zeola aldameneko zea, nere etxeko, egia esan nik, nere etxe zaharra, nik hartu behar nun Ondarreta izena baiño Ondarreta ez nun hartuko ez dakit, ez zitzaian iruitu interesantea. Iruitzen zitzaian interesanteago zala Txillardegi ba, ez dakit, dudik gabe ez dao beste Txillardegiik, ez dao... Ta hola gertatu zan, hartu nun Txillardegi, hasi nintzan idazten Txillardegi izenarekin ta gero azkenean Txillardegi, Txillardegi, hola gelditu da asuntoa. Ni hasi nintzan ya, hasieratik hasi nintzan idazten, erabilli ditut beste ezizenak ere bai eh, baiño hor en fin, sustraitu dena ez dakit zeatik ba Txillardegi izan da. 'El brezal', ezta? 'Zona de brezos', bazeuden gaiñea. Han zeon bai.

3. Antigua, auzo industrial

- **Erref:** DON-010/005
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:04:37. **Bukatu:** 00:07:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Antigua nolakoa zen, umea zenean. Lantegiak: Lizarriturri, Suchard, Ayala altzariak, El Leon. Bentaberri. Matia kalea, Erregezainen kalea eta Heriz pasealekua. Hondartza basatia eta Ondarretako kartzela. Igeldoko tranbia. Funikularra.</p>

Transkripzioa

- Nolakoa zen Antigua zu umia ziñala?
- Ni umia nintzanian? Jo, ba, Antigua zan industri auzo bat. Osea, hori da lehenengo gauza. Han zeon: alde batetik zeon Lizarriturri, Lizarriturri-Rezola, jaboia-eta egiten zituna. Gero han zeon Suchard ere bai, han zeon Ayala muebleak... en fin, fabrikak. Kutz zan inportanteena, zerbezak, garagardoak egiten zituna.
- 'El Leon', ezta?
- 'El Leon', bai. Ta hori zeon, ba, Bentaberri onduan. Bentaberri onduan. Bentaberri... izena behintzat salbatu da. Eta hori zan. Orduan Antigua zer zan? Ba, guztiz auzo langille bat. Eta, hain zuzen ere, gero... Baiña hori zan Matia kalea eta Escolta Real. Hoiek zian benetako Antigua. Eta baita aldapa ere... eliza jeistean ateratzen zera "rraa" justu Txillardegira ateratzen ziñan, ezta? Txillardegi itxita zeon ta zeon [murru bat] bueltan. Eta, orduan, ba, ez dakit ze esan. Ba, hori da.
- Eta hondartza nolakua zan?
- Hondartza garai hartan oso hondartza basatia zan, ezta? Eta orduan, hor zeon kartzela, ez da ahaztu behar, e. Kartzela zeon justu Satrustegi daon lekuan, horren azpian [...] eta hor zeon kartzela. Bueno, gartzela. Eta, orduan, gartzela inguru hortan bazeon halako baimen... eztakit ofiziala ala

ez ofiziala, baiño halako libertade haundiagoko leku bat. Eta, orduan, han ibiltzen zian diplomatikoak eta holako jendiak eta, bueno, beren kasa ibiltzen zian nolabait esateko, ezta? Eta bestia, berriz, bestia, ba, plaia zan, pues, bueno, gaur dana gutxi gorabehera: baratzetan, jardiñetatik itsasora, parte hortan. Hor bakarrik, esaten dizut, gauza bakarra zan gartzela. Ta orduan gartzela [tranbia...]. Tranbia horrea allegatzian gelditzen zan gartzela aurrian, hor jeisten zian egunero emakumeak-eta presoei janariak ekartzera ta hola, ta hantxe gelditzen zan. Eta gero hor segitzen zun eta hortik pasatzen zan itsaso aldera eta segitzen zun funikularrera. Ez dakit, hori planoetan eta oso ondo ikusten da. Eta hor zeon pareta. Eta pareta hoietan, gaiñera, itsasoak batzutan jotzen zun, itsaso txarra zanian, eta badaude foto batzuk hor pareta puskatuak. Osea, kartzelako pareta puskatu zun itsasuak. Puska bat, e! Esan nahi dizut, jo iten zun. Klaro, hori tenisan onduan da, ezta? En fin, hori da.

4. Antiguako hondartza, tabernak eta dendak

- **Erref:** DON-010/006
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:07:32. **Bukatu:** 00:09:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Hondartza aerodromo moduan erabili zen, eta hipodromo gisa ere bai, baina berak ez zuen hori ezagutu. Tabernak: Bar El Avion eta Charola. Ezenarrotarren alpargata denda.</p>

Transkripzioa

- Eta hondartza aerodromo bezela ere erabili izan zan, ez?
- Hori lehenago, bai. Lehenago bai. Bai, lehenago. Hori jardiñetan. Hori zan "campo de maniobras" eta, ordun, e... bai, orduan, ba, abioiak jeisten zian. Baiño abioneta txikiak, e! Baiño bai, bai, egia da, izan zan. Eta izan zan hipodromo ere bai eta iten zian hor karrerak eta gauzak. Bai. Baiño nik ez det ezagutu hori, e! Hori lehenago da.
- Eta zuk ze taberna ezagutu zenitun han, Antiguan?
- Antiguan?
- Zu bizi ziñan lekuan inguruan.
- Bueno, ni bizi nitzan [gunean], hor gure inguruan, hola, bertakoena zalako, pues hor zeon Bar El Aviión. Ubiriatarrak ziran. Eta hori zeon, ba, Matia... ez dakit zenbat, Matia 16 o 18 izango da. Pareak dia. Hori zeon. Ta gero zeon Bar Charola. Escolta Real eta Heriz izkiña hortan, hor zeon. Eta egon da nahiko berandu arte egon da Bar Charola. Zinea izan zan ere bai; zinea ematen zun. Eta hori ya, hortik aurrera zeuden ya Bentaberri aldeko tabernak eta gauzak. Baiño, bueno, ez zian... ez zian oso famatuak. Ez dakit. Ez naiz gogoratzen behintzat.
- Eta dendak? Gogoratzen zea nun zeuden?
- Dendak? Dendak ni gogoratzen naiz, ba, nere aitonaren laguna hango jabea zalako, Ezenarrotarrak. Osea, Rafa da Rafa Albisu Ezenarro, ezta? Rafa Albisu Ezenarro Mikel Albisuren aita, ezta? Ba, hor bazeon "alpargatería" deitzen zitzaion: Alpargatería Ezenarro, ezta? Ta hori zeon

plaza... plaza-plazakoa, Antiguako plaza [...] ondoan, izkiña iten zun. Eta bai, hor zeon alpargateria hori. Eta, bueno, ni hortaz gogoratzen naiz, bai. Hola, dendak... gero dendak... ez naiz gogoratzen.

5. Euskaraz jakin ez, eta baserritarra ezin ulertu

- **Erref:** DON-010/007
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:09:35. **Bukatu:** 00:12:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Umetako jolasak: hondartzan, kanikekin. Igara aldera joaten ziren; bertako baserritar batekin ezin ulertu, umetan ez baitzekien euskaraz. Erdaraz bizi zen. Aita 12 urterekin joan zen Antiguara bizitzera, Tolosatik.

6. Konporta eta lantegietako sirenak

- **Erref:** DON-010/009
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:13:04. **Bukatu:** 00:14:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Auzoa oso aldatuta dago. Lehen nolakoa zen. Kondearen etxera txalupaz joan behar zen batzuetan, urak hartzen zuelako. Konporta eta usain txarra. Lantegietako sirenak.

7. Gerra aurretik, festak Antiguan

- **Erref:** DON-010/011
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:15:49. **Bukatu:** 00:16:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Gerra aurretik festak izaten ziren Antiguan. Ondoren, ez.

Transkripzioa

- Nolakuak izaten ziran?
- Jaiyak? Ni goatzen naiz gerra aurrian ba hoi oroitzapenak badet nik, ba, festa euskaldunak egon ziala, "o sea" gerra baiño lehenago e? Klaro, "o sea" hogeita hamasei baiño lehenago. Ta ni oso ondo goatzen naiz, festak nik ikusi ditut elizaren aurrian dantzariak, eta holako gauzak bai, hortaz goatzen naiz ni. Bai, festak euskerazkoak. Garai hartan, estatuto kanpaiña ta "en fin" PNV zan eta "en fin", bai, bai, hori bai. Oso ondo goatzen naiz ni

bai hortaz.

- Erromeria egoten zan?
- Erromeria... Nik hemen ez zeon erromeriaik, ez naiz goatzen, ez.
- Eta gero hurrengo urtetan dantzarako tokirik edo bazan?
- Dantza iteko ya ofizialki nolabait?
- Ez dakit, edo bestela igandetan eta ez zan egoten musikarik?
- Ez naiz goatzen, ez, hori ez.

8. Euskara ikasten nolatan hasi zen

- **Erref:** DON-010/012
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:16:47. **Bukatu:** 00:19:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Euskara ikasten nolatan hasi zen, amari galdezka. Gramatika txiki bat egin zuen. Osaba Isaac Lopez Mendizabalen apoderatua zen, eta haren liburutegia zeukan. Liburuak utzi zizkion. Orduko gramatikak. Iñaki Zumeta izan zuen irakasle. Emazteak ikastola zeukan.

9. Eskola garaia: lehenengo Antiguan, gero Aldapetan

- **Erref:** DON-010/013
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:19:43. **Bukatu:** 00:21:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Mintegi ahizpekin ibili zen lehenengo, eta gero Marianistetan, Aldapetan. 1946 arte egon zen; mutilentzat bakarrik zen. Valladoliden errebalida egitera joatea abentura izan zen.

10. Bilbora ikastera; politikarako harra piztu zitzaion

- **Erref:** DON-010/015
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:21:31. **Bukatu:** 00:24:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Pianoa ikasteko gogoaz zuten, baina aitak ez zion utzi. Ingeniaritza ikasi zuten, Bilbon. Errazionamendu kartila zuten. Emakume batzuek estraperloko ogia saltzen zuten. Politikarako kezka 17 urterekin piztu zitzaion. Ekin taldea. Kartzelako egonaldiak. Martutene.

11. Ekin taldearen sorrera I

- **Erref:** DON-010/016
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:24:31. **Bukatu:** 00:25:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

EAJrekin jarri ziren harremanetan, baina iruditu zitzaion haiek ez zirela nahikoa mugitzen, eta Ekin sortu zuten, talde klandestino. Bilerak.

Transkripzioa

- PNVkin bueno harremanetan jarri ziran eta...?
- Bueno, orduan gertatu zan ba, klaro, gu hasi giñanian mugitzen, pues orduan PNVko batzuk enteratu dia, noski; "aquí un grupo de jóvenes interesaus y tal". Eta orduan ba guri proposatu ziguten sartzea, eta guk pentsau genun PNVn ezer ez, PNVk ez zula ezer egiten, "que decía que había que esperar y" guk nahi genun zerbait egin, eta hola sortu zan Ekin taldea. Ekin taldea, "super seguro", joe, dana debekatua, "papera hau irakurri eta erre zazu" ta, "en fin", hola, plan hortan, ezta? Bai.
- Klandestinitatean ez?
- Bai, bai, klandestinitate, bai, bai, klaro, ya danak kartzelan egonak giñan, danak gea; eta esan genun "joe, ez gea berriz eroriko zozoak bezela ezta?"
- Eta nun elkartzen zireten, etxe pribatuetan eta hola?
- Bai, bai, ta tabernetan'e bai, ta bueno ahal genun bezela. Konfiantzako lekuak billatzen genitun eta hola. Bai, baiño bueno, bai, tabernetan normalean.
- Eta elkarri papertxoak eta pasatzen, ta gero erre ta...
- Bai, bai, gero erre ta bai, bai. Joe. Bai, bai, oso estu, bai.

12. 'Leturiaren egunkari ezkutua' liburua

- **Erref:** DON-010/017
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:25:47. **Bukatu:** 00:27:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

<p>1956an idatzi zuten Leturiaren egunkari ezkutua liburua, Ferrolen alferez gisa zegoela soldadutzan. Asko irakurtzen zuten. 1. pertsonako nobela, existentzialista.</p>

13. Erbestea: Paris, Landak

- **Erref:** DON-010/019
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:27:42. **Bukatu:** 00:30:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Bigarrenenez, 1960an atxilotu zuten, eta gero bestaldera joan zen. Xarriton. Hazpamen egon zen, eta gero lana aurkitu zuen Parisen. Gero, Euskal Herrira. Landetara joan zen bizitzera.

14. 'Peru Leartzako', bigarren nobela

- **Erref:** DON-010/021
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:30:55. **Bukatu:** 00:32:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Erbesteko urteetan beti izan zuen lana. Peru Leartzako liburuaren kritika txarrengatik idatzi gabe egon zen denbora batez. Elsa Scheelen nobela Bruselan idatzi zuen.</p>

15. Euskaltzain "urgazle iraunkorra"

- **Erref:** DON-010/023
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:32:40. **Bukatu:** 00:33:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskaltzain urgazle hautatu zuten 1957an, baina gero euskaltzain oso inoiz ez. "Urgazle iraunkorra".

16. Ekin taldearen sorrera II

- **Erref:** DON-010/026
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:34:22. **Bukatu:** 00:35:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>ETA sortu zen garaia. Benito del Valle. Gerra garaiko Gudari aldizkariaren aurrean egin zuten zin. Ekin taldea, 1956.</p>

Transkripzioa

-Guk nahi genun zerbait ein eta ordun ba, ba goatzen naiz ba ein genula ba billera bat Benito del Vallen etxean, Benito del Valle zan fundatzailleetako bat, [...] Larrinaga. Ta orduan ez dakit nundik atea genun gerra garaiko ez dakit ze rebista zan, 'Gudari' izango zan, eta azala zeukan ikurriña bat, eta orduan, danak han Benito del Vallen etxean goatzen naiz, jarri giñan danak zutik, bost eo sei giñan, eta esan genun bueno: "Zin eiten degu, hau ez dala iñoiz jakingo", ta ez dakit zer ta: "ixilik gaude hau super sekreto...". Ta hola hasi zan Ekin taldea, "super sekreto", 56an berez.

17. Fonologia irakasle, urte askoan

- **Erref:** DON-010/031
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:37:25. **Bukatu:** 00:38:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Irakasle EHUn urte askoan. EUTGn hasi zen, Aita Altunak proposatuta. Fonologia eskolak, batez ere.

Transkripzioa

- Irakasle ibili zea Euskal Unibertsitatean?
- Bai, unibertsitatean bai, urte askotan, bai, bai, bai.
- Eta nola... bueltatu ziñanian... Bueno, ingenieritza noiz utzi zenun?
- Bueno, ni itzuli nintzanean Aita Altunak proposatu zian EUTGn klasiak ematea. Eta orduan hasi nintzan ba fonologia ematen, ematen ba zeran, EUTGn, eta gero Deuston'e bai, gero Deusto. "O sea" lehenbizi, beraz, lehenbizi Antiguán, Jesus, EUTGn, eta gero Deustun. Eta Deustun ere ba nik urte askotan eman det klasea'e bai, bai, urte askotan bai. Beti fonologia. Gehienbat fonologia, dialektologia beharbada ere bai, baiño bueno, batez ere fonologia, bai? Fonologia hain zuzen ere liburu bat badegu; begiratzan badezu, hor hori fonologia da.
- Euskal filologiako hortan ematen zenun? Euskal filologian ala ez? Karrera, euskal filologia karrera barruan?
- Bai, hori da, bai, bai.

18. Antiguako bizimodua, umetan

- **Erref:** DON-010/034
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:40:04. **Bukatu:** 00:42:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Arrain-saltzaileen garrasiekin akordatzan da. Konporta errekan ezin zen ez

bainatu eta ez arrantza egin. Benta Berrin, errota zahar bat zegoen. Igeldora sarri joaten ziren, masustak hartzera.

19. Dantzara Hernanira, bizikletan

- **Erref:** DON-010/036
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:42:49. **Bukatu:** 00:43:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Principe de Saboya hoteleko dantzaldiak. Hernanira ere joaten ziren, bizikletan.

20. Antiguako zenbait etxe

- **Erref:** DON-010/038
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:43:55. **Bukatu:** 00:45:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Boltsagilene etxea. Txalupagillene. Posoren etxea, orain AEk dagoena.

21. Hondartzako zomorroak; bainujantziak

- **Erref:** DON-010/040
- **Iraupena:** 0:04:23. **Hasi:** 00:45:58. **Bukatu:** 00:50:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Ondarretako hondartza. Zomorroak zeuden hondarretan; zulo txiki mordoak zeuden. Mutilak tirantedun kamisetarekin bainatu behar eta neskak gonarekin. Albornoza. Kasetak. Bainulariak. Ramon Baron.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com